

BEZEROEKIKO HARREMANAK



ZERBITZUA

ZERBITZU AUTOMATIZATUA

Zerbitzu automatizatua sare sozialen bitartez, bezeroek beren eskabideak egin ahal ditzaten denda fisikora joan behar izan gabe, eta hilabate bukaeran garraio enpresa baten bidez bidaliko dira.

ZERBITZU PERTSONALIZATUA

Bestalde bezeroen zalantzak argitzeko bezeroen arretarako **zerbitzu pertsonalizatua**. Hau da, sare sozialetan gure produktuen berri eta beharpenen berri emango dugu. Horrela, aldezturik jakin ahal izango dute gure bezeroek zer nolako salgaiak topa ditzaketen dendan edota horien prezioa kontsulta dezakete. Bestetik, bai telefonoz bai gmail bidez eta baita instagramez jar daitezke gurekin harremanetan, zerbitzu pertsonalizatua jasoz.

Bestetik, astebete lehenago esango dugu zein ikastaro egingo den. Eta horren berri, dendaren eskaparatean eta baita gure sare sozialetan emango dugu.

HARREMANETAN JARTZEKO MODUAK



Telefonoa



Gmail



Instagram

BEZERO BERRIAK ERAKARTZEKO METODOAK

Horrez gain, bezeroak erakartzeko edota gure zerbitzua hobetzeko, aholkuak edota proposamenak eskatuko dizkiegu gure ohiko bezeroei. Bestetik, garrantzitsua iruditzen zaigu gure zerbitzua ahalik eta gehien zabaltzea. Horregatik, beti ere eskertuak izango gara, gure zerbitzua bakoitzaren sare sozialetan zabaltzen badute.

Bestalde, laguntza pertsonala eskeiniko dugu. Izan ere, arroparen kasuan konponketak egingo ditugu, bezeroek erabili ahal izateko. Eta gainera, gure laguntza eskainiko dugu beraien gustuak ezagutuz, gure proposamenak eskainiz.

Eta gure bezeroak gure negozioan integartzeko, elkar-trukea egingo dugu. Hau da, gure bezeroak negozioaren parte senti daitezke, beraien ekarritako produktuak bertan topa ditzaketelako. Eta gainera, bezeroen artean ere harremanak sendotu daitezke, beraien artean egin ditzaketelako truke horiek. Hau da, elkar-truke zona bat bihurtu daiteke.

